
GLOSARIO

Mugikortasun iraunkorra

a

Anezka-autobusa

Hiri garraio autobus zerbitzua edo enpresako lineaz kanpoko zerbitzua. Ibilbide zuzenak egiten ditu bidaiariak garraio publikoaren geltokietan hartuz eta helmugako enpresara edo enpresetara joanez.

Aldageltokia

Gutxienez bi garraio publiko moduen arteko konexioa errazteko garraio sistemaren elementua.

Aldaketa modala

Garraio eskareraren araberako banaketa modalaren aldaketa. Nagusiki politika publikoek sustatzen dute sistemaren eraginkortasuna optimizatu eta garraioaren ingurumen eragin eta eragin sozioekonomikoak kontrolatzeko.

Aldi baterako ibilgailuaren erabilera

ikus Carsharing

Aldirietako aparkalekuak (“park & ride”).

Ibilgailuarekin autobus geltokira iristen diren pertsonentzat garraio publikorako sarbidea ahalbidetzen duen aparkalekua. Helburua pertsona horiek erdigunera bere ibilgailu propioarekin ez heltzea da.

Ardatz nagusia

Sare erradialak oinarritzen antolatzen dituzten edukiera handiko ardatzak. Sistemaren jariakortasuna osatzeko, egitura honek linea elikatzailak edo auzokoak ditu, sare nagusian oinarritzen direnak gainerako hiriarekin erlazionatzeko. Linea desberdinen arteko erlazioa autobus-aldaketan egiten da, diseinu elementu bezala. Gaur egungo bidaiaren denborei kalte ez egiteko, zerbitzu maila handia du eta sistema nagusiko abiadura komertzialaren funtsezko goragunean oinarritzen da.

Autobus erreiak eta okupazio handikoak

Aldi baterako edo etengabeko erabilera duten autobusentzat edota bidaiari kopuru minimo bat duten koteentzako zirkulazio erraiak. Hainbat mota daude gainerako erraien arabera (galtzada independentean, ohiko galtzadan baina gainerakoez fisikoki aldentuta edo seinaleztatuta), zirkulazio noranzkoa (normala, joeraren kontra, itzulgarria) edo bidaiari kopuru minimoaren arabera (bi, hiru, lau edo ‘autobusa bakarrik’).

b

Banaketa modala

Garraio mota bakoitzaren parte hartzea, merkatzia edo bidaiari garraioekiko, zifra absolutu edo ehunekotan.

Bide-segurtasuna

Zirkulazioaren funtzionamendu egokia ahalbidetzen duten ekintza eta mekanismo multzoa. Legeak eta araudiak erabiliz eta baita oinezko, bidaiari eta gidarien jokaera arauak erabiliz ere. Helburua bide publikoa egoki erabiltzea da ezbeharrak saihesteko.

BRT sistema (Bus Rapid Transit edo autobus garraio azkarreko sistema).

Hiriaren Hiriaren mugikortasun handiena duten kaleetan ezartzen den sistema, auzoko lineek elikatzen dute, ibilbideen bikoiztasuna saihestuz. BRT sistema ohiko autobus garraio sistema bat da baina zerbitzu eta operazio maila tren garraioan erabiltzen direnak dira eta azpiegitura gastu murrizak ditu. Hortaz, teknika honek gastu-onura balorazioa oso ona du tren sistemei dagokionez.

c

Carpooling.

Inguru hurbilean bizi diren bi pertsona edo gehiagoren artean, horietako baten ibilgailua erabiliz joan-etorri bat egitearen ekintza da. Adostasun hori pertsonala edo enpresa berean lan egiten badute enpresak berak sustatua izan daiteke.

Carsharing

Erabiltzaile askoko ibilgailu bezala ezagutzen da. Erabiltzaileek elkarbanatzen dituzten ibilgailu batzuetan oinarritzen den garraio sistema bat da. Erabiltzaileek egindako kilometroen arabera eta erabilitako orduen arabera ordaintzen dute, kuota finko batekin. Erabiltzaileak ez dira ibilgailuaren jabe.

e

Elkarbanatutako ibilgailua

ikus Carpooling

Erreserbatutako plataforma

Ibilgailu zehatz batzuetarako zirkulazio erraia (autobusak, bizikletak, bidaiari kopuru minimo bat duten ibilgailuak). Hau da, erabilera eskusiboa duen edozein azpiegitura.

Eskaeraren arabera garraioa

Garraio publikoen sistemetan edota taxi kolektibo zehatzen zerbitzuetan, ibilbidea aldatzeko aukera bide alternatiboen artean, momentu bakoitzeko eskaeraren arabera.

Espazio publikoa

Leku batean pertsona batek bertan egoteko eskubidea edo zirkulatzeko eskubidea, espazio pribatuetan gertatzen ez dena. Hortaz, espazio hori jabetza publikoko gunea da eta bere erabilera publikoa.

g

Garapen iraunkorra

Etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jarri gabe gaur egungo belaunaldiak asetzen dituen garapena. Garapenaren hiru dimentsio edota planoen arteko oreka bilatzen du: ekonomikoa, soziala eta ingurumen bate-ragarritasuna.

Garraio eskaeraren kudeaketa

Mugikortasunaren gaian pertsonen erabakiak bideratzeko neurri multzoa garraio mota batzuekiko, gidaria soilik doan ibilgailu pribatuekiko alternatibak bereziki.

Gidatze ekonomikoa/ekologikoa

Motordun ibilgailuetako gidatze modua. Kontsumo energetikoa murrizten du eta, horrez gain, ingurumen eragina eta kostu ekonomikoak gutxitzen ditu.

h

Hiri mugikortasun iraunkorra (Planak)

Kudeaketa eta planifikazio instrumentuak mugikortasun iraunkorra sustatu eta bultzatzeko, batez ere garraio publikoa sustatuz eta mugikortasun ez motorizatua bultzatuz. Beste politika batzuekin eta mugikortasun beharrezanekin lotura duten beste ekintzekin koordina daiteke.

Hiri-bidesaria

Hiri esparru zehatzetan ibilgailuak bertan zirkulatzeagatik edo egoteagatik ordaindu beharreko bidesaria.

Hiri-zelulak

Hiria antolatzeko modu bat dira, hiriko espazio publikoaren kalitatea hobetzen duena, haietan jatorria eta helmuga (“zelulak”) duten ibilgailuetara mugatutako zirkulazio eremuak definitzearen bidez eta haien arteko espazioetara (“espazio interstizialak” edo “zelula arteko espazioak”) zirkulazio-fluxuak biltzearen bidez. Hartara, zeluletan mugatuta gelditzen da zirkulazioa, eta haietarako sarbidea haietan bizi direnek, eta segurtasuneko, larrialdietako eta garbiketako ibilgailuek eta zerbitzuek baino ez dute. Merkataritzako hornitzaileek ere izan dezakete sarbidea (zamalantarako), baina sarbide hori eguneko ordu batzuetara mugatu daiteke eta bai lanegunetara ere. Garraio publikoa eta ibilgailu motordunetako gainerako mugikortasuna zelula arteko interstizioetatik egiten da. Modu horretan eginda, lortzen da zelularen barne-funtzionamendurako beharrezkoak diren mugimenduak besterik ez egitea zelulen barnean, eta zelula desberdinen arteko erlazioak zelula arteko espazioetatik egiten dira

Ibilbide irisgarria

Oinez egiteko edozein pertsonarentzat egokia den ibilbidea. Hortaz, eraikinaren, ekipamenduen eta zerbitzuen arteko antolamendu bat egon behar da. Horrela, alor bakoitzaren dimentsioez eta funtzioez gain, oinezkoen pasabideko banda librea egotea bermatzen du eta argitasuna eta arrazionaltasuna egotea ondoan dauden elementuen antolamenduan.

Ibilbide segurua

Hiritar talde baten mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko hiri ibilbidea, batez ere oinezkoena eta txirrindulariena.

Ingurabidea

Hirigune bat inguratzen duen trafiko bidea, erdigunean zirkulazio altua sahiesteko eta ibilbideak komuni-

katzeko.

Irisgarritasuna

Leku zehatz batera erraztasunez eta inolako oztopo fisikorik gabe leku aldatzeko gaitasuna.

k

Karbono aztarna

Pertsona, prozesu edo erakunde baten CO₂ isurketak. Isurketak murrizketa helburuak hobetzeko eta hobekuntzak monitorizatzeko neurtzen dira.

karbono dioxidoa, CO₂

Berotegi efektua eragiten duen gas nagusia da. CO₂ren isurketak osotasunaren hiru laurden baino gehiago osatzen du. Kontsumitzen den gasolina litro bakoitzetik CO₂ko 2,35kg isurtzen dira, eta 2,6 kg gasolioaren kasuan.

l

Lekualdaketa

Jatorri eta helmuga zehatza duen ibilbidea. Bertan, garraio bat edo bat baino gehiago erabiltzen dira eta etapa bat edo gehiago izan ditzake.

Lekualdatzeen batez besteko denbora (garraio publikoan)

Normalean, autobusetako joan-etorrietan aurrez egindako oinezko ibilbidea eta ondorengoa kontuan hartzen dira. Metropolialdea baino haratago egindako lekualdatzeetan, metropolialdean bertan egindako lekualdatzea soilik hartzen da kontutan. Etxez-etxeko inkestean bidez eskuratzen da informazioa.

m

Merkantzien zamalanak

Merkantzien hornikuntza egiteko azken/lehen ekintza bezala ulertzen da, ezinbestekoa dena bitartekariei edo azken erabiltzaileei merkantziak banatzeko.

Metropolialdea

Toki geografiko urbanizatua, hirigune desberdinen artean lekualdatze elkarreragin handia duena, bai joan-etorrietan, egunerako harremanetan edota jarduera ekonomikoetan adibidez.

Mugikortasun inkesta

Lekualdaketa ohitura eta hiritarren inguruko informazio eta datuen bilketa.

Mugikortasun iraunkorra

Gizartearen beharrak asetzen ditu mugikortasunaren inguruan, libreki, modu erraz eta irisgarrian mugitze-ko eta gaur egungo edo etorkizuneko bestelako giza baloreak edo balore ekologikoei uko egin gabe. Ekonomia Iraunkorraren 2/2011 Legean esaten denez, hiritarren eskubidea da, ondasun eta zerbitzuen sarbidea ahalbidetzen duena mugikortasun egokiarekin, irisgarria eta segurua dena eta ahal den ingurumen eragin eta sozial gutxien duena. Era berean, mugikortasun iraunkorrak kolektibo zaugarrienak (oinezkoak, txirrindulariak edo mugikortasun murrizta duten pertsonak) babestea du xede, baita garraio mota guztien kostu sozioekonomikoak barneratzea eta hiritar guztiei irisgarritasun unibertsala ahalbidetzea, bai leku publikoetara eta garraio publikoan edo garraio ez motorizatueta.

Mugikortasuna genero ikuspegitik

Generoaren garrantzia hartuz pertsonen mugikortasun ereduak lantzeko modua. Gizon eta emakumeen joan-etorrietan haien portaera baldintzatzen duten arazoak ezagutzeko, eta batez ere, politikak diseinatzerako orduan eta mugikortasun plan iraunkorrak egiterako orduan ikuspegi hau kontutan hartzeko beharra.

Mugikortasunaren barne kostuak

Norbanakoaren eta familiaren ekonomian eragina duten mugikortasun kostuak.

Mugikortasunaren kanpo kostuak.

Pertsonen edota estatuen balantze ekonomikoan islatzen ez diren mugikortasun kostuak. Ingurumena-ekin eta gizartearekin lotura dute. Inork ez ditu bere gain hartzen kostu hauek baina bizi kalitatean eta herritarren ongizatean eragina dute: isurketak, aldaketa klimatikoa, zarata, trafiko istripuen efektuak, auto

pilaketaren ondorioz dagoen denbora galtzea...

0

Oinezkoen zabalera minimo librea / Oinezkoen altuera minimo librea.

Oinezkoen zirkulaziorako zabalera eta altuera minimoa, inolako oztoporik gabekoa eta edozein ibilbidek eskaini behar duena, bai oinezkoen noizbehinkako erabileran, lehentasuna dutenean edota oinezkoen erabilera propioa dutenean.

Oinezkoentzako ibilbideen sare nagusia

Edukiera altuko eta oinezkoentzat eroso den bide multzoa. Udalerrri baten mugikortasun eremu nagusiak lotzen ditu. Elementu desberdinak izan ditzakete: oinezkoen erabilerarako diren kale edo bideak, espaloiak, bulebarrak...

Oinezkoentzako pasabideko galtzadako bandak

Banda txuri islatzaile eta ez labaingarriak, haien artean paraleloak direnak eta bide-zoruan edo asfaltoan margotuak daudenak. Oinezkoen pasabidearen zabalera osoa okupatzen dute.

Oinezkoentzat egitea

Oinezkoentzat bakarrik diren kale edo plazen egokitzapena. Motordun ibilgailu guztien sarrera debekatuta dago larrialdietako ibilgailuak izan ezik. Ibilgailu partikularren (banaketa, bertakoak...) salbuespen sarbidea onar daiteke, ordu zehatz batzuetan. Oinezkoen eremuek zolaketa bateragarria dute, zirkulazio banden bereizketarik eta seinalaztapenik gabe.

Okupazio altuko erreiak

Erreserbatutako erreiak, bai aldi baterako edo betirako, bidaiari minimo bat duten ibilgailuentzat.

t

Trampe (remonte para bicicletas)

Sistema elevador de bicicletas utilizado normalmente en cuestas. La mayor parte de la estructura de Trampe está instalada bajo tierra para evitar que cables, mástiles o cualquier otro elemento obstaculicen o puedan suponer un peligro para las personas o vehículos que circulen cerca del transportador. Para usarlo es suficiente colocar el pie derecho encima del transportador y el izquierdo en el pedal de la bicicleta.

Txirrindularientzako azpiegituren sarea.

Txirrindularien zirkulaziorako diseinatu eta araututako elementuen multzoa. Haien artean eta udalerrri baten mugikortasun eremu nagusiekin konektatzen dira.

Z

Ziklabilitatea.

Bizikletaz modu seguru batean eta beharrezko baldintzekin egin daitekeen ibilbidea edo espazioa.

Zirkulazioa moteltzea

Oinezkoen zirkulazioarekin bateragarria izateko eta espazio publikoa eroso izateko ibilgailuaren intentsitatea eta abiaduraren murriztea.

Teknika eta neurri batzuk bere gain hartzen ditu eta espazio publikoaren planifikazioan eta dagoeneko eraikita dauden eremuetan aplika daiteke. Erabilienak sakanguneak, oinezko pasabideen galtzada goratzea, galtzada estutzea, 20 edo 30eko eremuak dira.

